

INDARKERIA MATXISTAREN

aurrean

PREBENITZEKO

eta

JARDUTEKO

PROTOKOLOA




Getaria 2026

Aurkibidea

1. <u>Zergatik protokolo hau?</u>	3
2. <u>Zein dira gure oinarriak?</u>	5
3. <u>Zer lortu nahi dugu?</u>	7
4. <u>Zer da indarkeria matxista?</u>	9
4.1 <u>Indarkeria matxistaren hamaika aurpegi</u>	10
4.2 <u>Indarkeria matxistak: legearen eta errealitate sozialaren arteko arrakala</u>	17
5. <u>Nola prebenitu eta zaindu?</u>	21
6. <u>Noiz eta non aplikatuko da?</u>	25
7. <u>Zer egin eraso baten aurrean?</u>	27
7.1 <u>Nork aktiba dezake protokoloa?</u>	27
7.2 <u>Nola aktibatzen da protokoloa?</u>	28
7.3 <u>Oinarrizko pautak egoera guztietan</u>	31
7.4 <u>Pauta zehatzak egoeraren arabera</u>	32

8. <u>Adingabeak eta babes berezia behar duten egoerak</u>	42
8.1 <u>Adingabeekin esku hartzeko irizpideak</u>	42
8.2 <u>Adingabeen eta pertsona zaurgarrien aurreko indarkeria matxistak</u>	43
9. <u>Nola erantzun herri mailan?</u>	44
10. <u>Norekin koordinatu eta nora jo?</u>	47
11. <u>Nola hobetuko dugu protokoloa?</u>	52
I. <u>Eranskina. Erantzun instituzionalerako eredua</u>	54



1. ZERGATIK PROTOKOLO HAU?

Getariako Udalak, herriko eragileekin eta komunitatearekin elkarlanean, aisialdi- eta jai-guneetan indarkeria matxistak prebenitzeko eta horien aurrean modu koordinatuan jarduteko Protokolo hau garatu du. Dokumentu hau ez da soilik eraso egoeren aurrean jarduteko tresna tekniko edo administratibo bat; herri mailako konpromiso politiko eta komunitario baten adierazpena ere bada. Helburua da Getariako jaiak eta aisialdi-guneak pertsona guztientzat seguruagoak, askeagoak eta berdinzaleagoak izatea, emakumeek eta subjektu transmaribibolloek espazio horiek beldurrik, kontrolik edo indarkeriarik gabe bizi eta gozatzeko duten eskubidea bermatuz.

Protokolo honen abiapuntua da indarkeria matxistak ez direla gertakari isolatuak edo salbuespeneko egoerak, baizik eta emakumeen eta sexu eta genero disidentzien aurkako egiturazko desberdintasunen adierazpenak direla. Jai- eta aisialdi-inguruneetan ere indarkeria horiek modu desberdinetan agertzen dira:

jazarpen moduan, komentario sexistetan, kontrol-jarreretan, presio sexualetan, ukitu desegokietan, eraso sexualetan edo espazio publikoaren erabilera mugatzen duten beldur eta kontrol praktiketan. Indarkeria horiek guztiak continuum baten parte dira, eta zuzenean baldintzatzen dute emakumeek eta subjektu transmaribibolloek jaiak askatasunez bizitzeko duten aukera.


2026ko lehenengo hiruhilekoan herri mailan egindako diagnostiko-prozesuak erakutsi du Getarian badagoela azken urteotan indarkeria matxisten inguruan gero eta kontzientziazio handiagoa, bai udalaren aldetik, bai herriko mugimendu feministaren, Gazte Asanbladaren eta gizarte-eragileen aldetik ere. Herrian aurretik egon dira prebentzio ekimenak, zaintza sareak eta jaietan indarkeria matxisten aurrean erantzuteko esperientziak, baina askotan modu ez-sistematizatuan edo eragileen borondate eta gaitasunen arabera garatu dira. Horregatik, Protokolo hau urrats bat gehiago da herrian dagoen jakintza komunitarioa, praktika feministak eta udalaren

ardura instituzionala esparru komun batean artikulatzeko.

Era berean, diagnostikoan agerian geratu da herri txiki bateko dinamika sozialek berezitasun propioak dituztela. Alde batetik, gertutasunak eta komunitate sareek erantzun azkarrak, zaintza harremanak eta mobilizazio kolektiboa erraz ditzakete; baina, bestetik, harreman sare estuek inpunitate egoerak, isiltasunak, zurrumurruek edo presio sozialak ere sor ditzakete. Horregatik, protokolo honek bereziki azpimarratzen du koordinazio argiaren, erantzunkidetasun komunitarioaren eta biktimen babesaren garrantzia.

Dokumentu hau egiteko oinarri izan dira Getarian egindako diagnostiko feminista, udalaren eta herriko eragileen arteko lan-saioak, Gazte Asanbladaren protokoloa eta herriko eragileen zein norbanakoen ekarpenak. Prozesu osoa ikuspegi feminista, interseksional eta komunitario batetik garatu da, ulertuz generoarekin batera beste zapalkuntza ardatz batzuek ere eragina dutela indarkeria matxisten esperientzian eta jai espazioen erabileran.

Protokolo honek ez du soilik eraso egoeren aurrean nola jokatu definitu nahi. Helburua da, era berean, jai-kultura eraldatzea, prebentzioa eta sentsibilizazioa indartzea, zaintza kolektiboa sustatzea eta herrian indarkeria matxistekiko tolerantziarik ez duen kultura sendotzea. Zentzu horretan, dokumentu hau politika publiko feministarako tresna estrategiko bezala ulertzen da, udalaren, herriko eragileen eta komunitatearen arteko lankidetzak indartuz emakume guztien eta subjektu transmaribibolloen askatasuna, segurtasuna eta parte-hartze osoa bermatzeko.



2. ZEIN DIRA GURE OINARRIAK?

JAIK ETA ASIALDI-GUNEAK ESPAZIO SEGURU ETA ASKEAK DIRA

Protokolo hau ideia sinple baina garrantzitsu batetik abiatzen da: Getariako jaiak eta aisialdi-guneak pertsona guztientzako espazio seguruak, askeak eta bizigarriak izan behar dira. Jaiak gozatzeko, elkartzeko eta herria egiteko espazioak dira, eta horregatik ez dugu onartzen emakumeek edo subjektu transmaribolloek beldurrarekin, kontrolarekin edo indarkeriarekin bizi behar izatea espazio horietan.

INDARKERIA MATXISTAK EZ DIRA GERTAKARI ISOLATUAK

Ulertzen dugu indarkeria matxistak ez direla “gauza puntualak”, ezta “jaietako gehiegikeriak” ere. Arazo estruktural baten parte dira, eta eguneroko jarrera, komentario, kontrol edo botere harremanetan ere agertzen dira. Horregatik, protokolo honek ez ditu soilik eraso fisiko larriak kontuan hartzen; jazarpena, komentario sexistak, ukitu desagokiak, presio sexuala, iraintzea, gutxiestea edo espazio batean deseroso edo arriskuan sentitzea ere indarkeria matxisten parte direla ulertzen du. Erasoa ez direla hutsetik sortzen, baizik eta askotan sozialki normalizatutako jarrera normalizatueta sostengatzen direla.

ERASOA JASAN DUEN PERTSONA ERDIGUNEAN

Protokolo honen beste oinarri nagusietako bat da eraso jasan duen pertsona erdigunean jartzea. Horrek esan nahi du pertsonaren hitza, erritmoak, beharrak eta erabakiak errespetatuko direla. Ez da epaituko, ez da zalantzan jarriko eta ez da presionatuko salaketa jartzera edo modu jakin batean jokatzera. Askotan indarkeria matxisten inguruan emakumeek eta subjektu disidenteeek beldurra, lotsa, erruduntasuna edo babesgabetasuna sentitzen dituzte, eta protokolo honen helburua kontrakoa da: entzunak, sinistuak eta babestuak sentitzea.

EZ DAGO JUSTIFIKAZIORIK

Argi daukagu eraso baten erantzule bakarra erasotzailea dela. Alkoholak, drogek, jai-giroak edo “gaizki ulertu” batek ez dute indarkeria justifikatzen. Protokolo honek jaietan goatzeko eskubidea defendatzen du, eta indarkeria matxistekiko tolerantziarik ez duen jarrera argia hartzen du. Jaietan libre ibiltzea, dantzatzea, ligatzea edo gabez espazio publikoan egotea ez da arriskua hartzea; eskubide bat da.

ZAINTZA KOLEKTIBOA ETA HERRI ERANTZUNKIDETASUNA

Protokolo honek zaintza kolektiboaren ideia jartzen du erdigunean. Indarkeria matxisten aurrean ezin da ardura guztia eraso jasaten duen pertsonaren gain utzi. Herri osoak dauka ardura: Udalak, Jai Batzordeak, Gazte Asanbladak, tabernariak, elkarteak, koadrilek eta herritarrek oro har. Horregatik, protokolo honek komunitatearen inplikazioa bilatzen du, ulertuz prebentzioa eta erantzuna ez direla soilik instituzioen lana, herri osoarena baizik.

ISILTASUNAREN ETA INPUNITATEAREN AURKA

Horrek esan nahi du lekukoek ere badutela ardura. Ez dugu nahi “nik ez dut ezer ikusi” kulturarik, ezta indarkeria normalizatzen duen isiltasunik ere. Gertuko pertsonen konplizitateak, barreak, isiltasunak edo minimizazioak ere indarkeria sostengatzen dute. Horregatik, protokolo honek herritarrei interpelazioa egiten die, egoera baten aurrean ez pasibo geratzeko, ahal den neurrian esku hartzeko eta laguntza sare aktiboak sortzeko.

Getaria herri txikia da, eta horrek baditu bere alde onak eta bere zailtasunak. Gertutasunak eta komunitate sareak laguntza eta zaintza erraztu ditzakete, baina baita inpunitatea, zurrumurruak edo presio soziala ere. Horregatik, protokolo honek bereziki azpimarratzen du koordinazioaren eta irizpide argien garrantzia, herrian egoera baten aurrean bakoitzak zer egin behar duen jakin dezan eta erantzunak pertsonen arteko harreman edo interesen arabera ez baldintzatzeko.

Azkenik, protokolo honek ikuspegi feminista eta intersekzionala hartzen ditu. Horrek esan nahi du ez ditugula esperientzia guztiak berdinak bezala ulertzen. Adinak, jatorriak, klase sozialak, hizkuntzak, aniztasun funtzionalak edo genero identitate eta orientazioek eragina dute jaiak bizitzeko moduan eta indarkeria matxistak pairatzeko arriskueta. Horregatik, protokolo honek bereziki kontuan hartu nahi ditu emakumeen eta subjektu transmaribibolloen errealitate eta behar desberdinak, jai espazioak benetan guztiontzat izan daitezen.

3. ZER LORTU NAHI DUGU?

Protokolo hau ez da soilik eraso baten aurrean nola jokatu azaltzeko tresna bat. Helburua askoz zabalagoa da: Getarian jaiak eta aisialdi-guneak modu seguruago, askeago eta berdinzaleago batean bizitzeko baldintzak sortzea. Horrek esan nahi du **indarkeria matxisten aurrean erantzuteaz gain, herrian prebentzioa, zaintza kolektiboa, erantzunkidetasuna eta kultura aldaketa sustatu nahi direla.**

Azken urteotan gero eta gehiago hitz egiten da indarkeria matxistez jaietan, baina askotan erantzunak eraso baten ondoren bakarrik aktibatzen dira. Protokolo honek logika hori gaingitu nahi du. Ez dugu soilik “zer egin eraso bat gertatzen denean” pentsatu nahi; lehenagotik ere lan egin nahi dugu, jai espazioak seguruagoak izan daitezen, jarrera matxistak normalizatu ez daitezen eta herriko eragileek tresnak izan ditzaten egoera horien aurrean jarduteko.

Helburu nagusietako bat da Getarian indarkeria matxistek jaietan duten eraginari buruzko ulermen partekatua eraikitzea. Diagnostikoan agerian geratu da askotan egoera batzuk normalizatuta daudela, batez ere gazteen artean, eta emakumeek edo subjektu transmaribibolloek askotan beren gain hartzen dutela arriskua saihesteko ardura. Horregatik, **protokolo honek herri mailako begirada kritiko bat sustatu nahi du, indarkeria matxistak ez ikusteko soilik eraso fisiko bortitza bezala, baizik eta eguneroko kontrol, jazarpen, presio edo beldur egoeren parte bezala ere.**

Era berean, protokolo honek herriko eragileen gaitasuna indartu nahi du. Diagnostikoan behin eta berriz azaldu zen elkarteek, tabernariak, Jai Batzordeak edo herriko beste eragile askok ez dutela argi zer egin egoera baten aurrean, nora jo edo nola lagundu. Horregatik, dokumentu honen helburua ez da soilik irizpide orokor batzuk idaztea, baizik eta **herriko eragileei tresna praktikoak eskaintzea: lehen arreta emateko irizpideak, koordinazio moduak, erreferenteak, komunikazio bideak eta prebentziorako neurriak.**

Bestalde, protokolo honek udalaren eta herriko eragileen arteko koordinazioa indartu nahi du. Diagnostikoan identifikatutako ahulezietako bat izan da askotan erantzunak sakabanatuak edo erreaktiboak izan direla, eta ez dela beti egon jarduteko marko komun argirik. Horregatik, **protokolo honek udalaren, Gazte Asanbladaren, mugimendu feministaren, ostalaritzaren, elkartearen eta herriko beste eragileen artean koordinazio-zubiak eraiki nahi ditu, egoeren aurrean koherentzia handiagoz jarduteko.**

Beste helburu garrantzitsu bat da biktimen edo bizirauleen babesgabetasuna murriztea. Horrek esan nahi du lehen arreta duina, entzute aktiboa eta laguntza egokia bermatu nahi direla, pertsonak berriz ez kaltetzeko edo bakarrik ez uzteko. Protokolo honek argi uzten du eraso jasanez duen pertsonaren ongizatea eta erabakiak izango direla lehentasuna, eta saihestu egin behar direla zalantza jartzea, presio egitea edo birbiktimizazioa eragin dezaketen praktikak.

Halaber, dokumentu honek jai kultura eraldatzeko helburua ere badu. Jaiak ez dira soilik kontsumo edo aisialdi espazioak; harremanak eraikitze eta komunitatea egiteko espazioak ere badira. Horregatik, **protokolo honek errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta zaintzan oinarritutako jai eredua sustatu nahi du, indarkeria matxisten aurrean tolerantziarik izango ez duena.**

Azken batean, protokolo honek **Getarian herri erantzun sendoago, koordinatuago eta feministago bat eraikitzen lagundu nahi du, emakumeek eta subjektu transmaribibolloek jaiak askatasunez bizitzeko duten eskubidea benetan bermatzeko.**

4. ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Protokolo honen baitan, indarkeria matxistatzat ulertzen dira emakumeen eta subjektu transmaribibolloen aurka ematen diren jokabide, harreman edo praktikak, haien askatasuna, segurtasuna, duintasuna edo autonomia mugatzen dituztenean. Indarkeria horiek ez dira soilik eraso fisiko edo sexual larrietan agertzen; askotan eguneroko jarrera, komentario, kontrol edo botere harremanetan ere agertzen dira, eta jai- eta aisialdi-testuinguruetan modu berezian normalizatu daitezke.

Indarkeria matxistak ez dira pertsona batzuen jokabide indibidual edo isolatuen ondorio hutsa. Sistema sozial eta kultural baten parte dira, historikoki emakumeak eta genero disidenteak bigarren mailako subjektu bezala kokatu dituen, eta boterea, autoritatea, desiratzeko moduak eta espazio publikoaren erabilera modu desorekatuan antolatu dituen. Zentzu horretan, indarkeria matxistaren jatorria ezin da ulertu misoginia, heteroaraua eta genero rol tradizionalak kontuan hartu gabe.

Misoginia ez da soilik emakumeekiko gorroto esplizitua; emakumeen aurkako mespretxua, gutxiespena eta kontrol soziala sostengatzen dituzten ideia, balio eta praktikak ere bada. Horregatik, askotan indarkeria matxista modu sotilean agertzen da: emakumeen hitza zalantzan jartzean, haien gorputzak etengabe epaitzean, emozionalegi edo “dramatikoei” direla esatean, edo haien askatasuna arriskutsu edo probokatzailer bezala irudikatzean. Jai-testuinguruetan misoginia horrek forma oso normalizatuak har ditzake, adibidez emakumeen presentzia sexualizatuz, “ligatzeko joko” bezala aurkeztuz insistente jarduerak edo emakumeek bizi dituzten egoerak minimizatuz.

Era berean, indarkeria matxistak heteroarauarekin lotura zuzena du. Heteroarauak harreman, genero identitate eta desiratzeko modu jakin batzuk soilik “normal” edo “onargarri” bezala aurkeztzen ditu, eta hortik kanpo geratzen diren pertsonak zigortu, baztertu edo ikusezin bihurtzen ditu. Horregatik, subjektu transmaribibolloek askotan indarkeria espezifikoak jasaten dituzte: barre egitea, identitatea zalantzan jartzea, genero adierazpena epaitzea, espazio publikoetan

deseroso sentiaraztea edo jai-giroetan “desegoki”, “arraro” edo “probokatzaile” bezala tratatzea. Indarkeria horiek ez dira salbuespenak; genero eta sexualitate ereduaren kontrol sozialaren parte dira.

Bestalde, sistema heteropatriarkalak gizontasun eredu konkretu batzuk ere sustatzen ditu, boterea, dominazioa, kontrola edo oldarkortasuna maskulinitatearekin lotuz. Horrek eragina du jai eta aisialdi espazioetan ere: askotan gizonen sozializazioak ligatzea konkista bezala ulertzea, ezezkoa erronka bezala bizitzea edo emakumeen gorputzetarako sarbidea normaltzat hartzea sustatzen du. Aldi berean, emakumeek eta subjektu disidenteeek beren gain hartzen dute arriskua saihesteko ardura: nola jantzi, norekin joan, zenbat edan edo zein espazio saihestu erabaki behar izatea, alegia.

Horregatik guztiagatik, protokolo honek indarkeria matxista ez du ulertzen soilik delitu edo eraso puntual bezala, baizik eta botere harreman desorekatuetan, misoginian eta heteroarauan sustraitutako sistema baten parte bezala. Ikuspegi horretatik, prebentzioa ez da soilik eraso baten aurrean jardutea; jaietan eta eguneroko harremanetan indarkeria posible egiten duten ideia, jarrera eta praktikak ere zalantzan jartzea eta eraldatzea da.

4.1 INDARKERIA MATXISTAREN HAMAIKA AURPEGI

Indarkeria matxistak ez dira modu bakar batean agertzen. Askotan, gizartean indarkeria fisiko edo sexu-eraso larriekin soilik lotzen dira, baina eguneroko bizitzan forma askotan agertzen dira, eta jai- eta aisialdi-testuinguruetan bereziki normalizatuak egon daitezke. Horregatik, protokolo honek ulertzen du indarkeria matxistek “hamaika aurpegi” dituztela, eta guztiak direla emakumeen eta subjektu transmaribibolloen askatasuna, segurtasuna eta parte-hartzea baldintzatzen duten botere harremanen parte.

Indarkeria matxista izan daiteke komentario sexista bat, emakume baten gorputza etengabe epaitzea edo “txantxa” moduan iraintzea. Getariako jaietan, adibidez, ohikoa izan daiteke neska bati txosna inguruan “horrela jantzita normala da begiratzea” esatea, edo emakumeen gorputzari buruzko komentario

sexualak egitea lagunarteko bromatzat hartuta.

Era berean, subjektu transmaribibollo bati bere genero adierazpenagatik barre egitea edo “zer zara zu?” moduko galderak egitea ere indarkeria matxista da. Askotan horrelako egoerak ez dira “eraso” bezala izendatzen, baina giro deserosoa, beldurra edo bazterketa sortzen dute, eta espazio publikoaren erabilera baldintzatzen dute.

Indarkeria matxista da, halaber, insistitzea edo presioa egitea. Pertsona batek ezetz esan edo interesik ez duela adierazi arren jarraitzea, kontaktu fisikoa edo sexuala bilatzea, edo lagun taldearen presioarekin egoera deseroso batean mantentzea ez dira ligatzeko modu “normalak”; adostasunaren eta askatasunaren aurkako praktikak dira.

Adibidez, jaietan neska bati behin eta berriz musuak ematen saiatzea hark atzera egin arren, edo taberna batean “ez izan borde” esanez presioa egitea, indarkeria matxistaren parte da. Jai giroetan askotan minimizatzen dira jokabide horiek, “ligoteoa”, “alkohola” edo “gaizki ulertuak” aitzakia bezala erabiliz.

Beste aurpegi bat kontrola da. Emakumeen edo subjektu transmaribibolloen janzkera, harremanak, desirak edo jokabideak etengabe epaitzea, jeloskortasuna normaltzat aurkeztea edo emakumeek non, norekin edo nola egon behar duten markatzea indarkeria matxistaren parte da.

Adibidez, mutil batek jaietan bere bikotekideari norekin dagoen etengabe galdetzea, beste mutil batzuekin hitz egiteagatik haserretzea edo “ez joan bakarrik Gaztetxera” esatea ez dira zaintza neutroak; kontrol praktikak izan daitezke. Kontrol hori askotan modu sotilean agertzen da, baina askatasuna mugatzeko funtzio argia dauka.

Ukituak, gorputzaren inbasioa edo kontaktu fisiko desagokiak ere indarkeria matxistaren adierazpen dira. Jai giroetan, jendetza edo alkoholaren aitzakian, askotan normalizatzen dira emakumeen gorputzak ukitzea, bultzatzea edo espazio fisikoa inbaditzea.

Adibidez, kontzertu batean emakume bati ipurdia ukitzea, dantzan ari den pertsona baten gorputza haren baimenik gabe heldu edo inguruan harrapatuta uztea ez dira “ukitu txikiak”; gorputzaren eta askatasunaren aurkako erasoak dira.

Indarkeria matxistaren adierazpenik larrienetako bat sexu-indarkeria da. Hor sartzen dira presio sexuala, ukitu sexualak, musuak behartzea, pertsona mozkortuen edo zaurgarrien egoeraz aprobetxatzea edo sexu-erasoak.

Adibidez, indarkeria matxista da jai amaieran oso mozkortuta dagoen neska baten egoeraz aprobetxatzen saiatzea edo haren ezintasun egoera “aukera” bezala ikustea. Adostasuna ezin dela interpretatu isiltasun bezala, eta ezin dela existitu pertsona beldurtuta, blokeatuta edo baldintza desorekatu batean dagoenean.

Bestalde, indarkeria matxista ere bada subjektu transmaribibolloek jasaten duten bazterketa eta indarkeria. Genero identitatea zalantzan jartzea, pronomenak ez errespetatzea, barre egitea, hipersexualizatzea, iraintzea edo espazio jakin batzuetatik kanporatzea ez dira “iritzi pertsonalak”; heteroarauaren eta genero kontrolaren parte diren indarkeria praktikak dira.

Adibidez, komun batean pertsona trans bati “hau ez da zure tokia” esatea edo jaietan genero adierazpenagatik talde batek seinalatzea indarkeria matxista da.

Getariako diagnostikoan bereziki agertu den gaietako bat adin-desoreka duten harremanen ingurukoa izan da. Jai eta aisialdi giroetan, batez ere gazteen espazioetan, botere desorekak dituzten harremanak ematen dira batzuetan, eta horiek ezin dira soilik "harreman pertsonal" bezala ulertu.

Adibidez, gizon heldu batek neska oso gazteekin sistematikoki harremanak bilatzea edo adingabeen zaurgarritasunaz aprobetxatzea ez dira "gustu pertsonalak" soilik; botere harremanekin lotutako egoerak ere badira.

Azkenik, protokolo honek ulertzen du indarkeria matxista ez dela soilik eraso bera. Askotan komunitatearen erantzunak ere indarkeria sostengatzen du. Biktimaren hitza zalantzan jartzea, "hainbesterako ez dela" esatea, zurrumurruek zabaltzea edo erasotzailea babestea ere indarkeria matxistaren parte dira.

Herri txiki batean, gainera, dinamika horiek bereziki gogorrak izan daitezke, denok elkar ezagutzen dugulako eta presio sozial handia sor daitekeelako. Adibidez, eraso salatu duen emakume bati "herriko mutil baten bizitza hondatzen" ari dela esatea edo gertatutakoa ezkutatzen saiatzea ere indarkeria matxistaren parte da.

Horregatik, protokolo honek indarkeria matxistaren aurpegi guztiak identifikatu eta problematizatu nahi ditu, ulertuz prebentzioa ez dela soilik eraso larriak saihestea, baizik eta indarkeria posible egiten duten jarrera, praktika eta normalizazio guztiak zalantzan jartzea.

Horregatik, protokolo honek indarkeria matxistaren aurpegi guztiak identifikatu eta problematizatu nahi ditu, ulertuz prebentzioa ez dela soilik eraso larriak saihestea, baizik eta indarkeria posible egiten duten jarrera, praktika eta normalizazio guztiak zalantzan jartzea.

Hurrengo taulan indarkeria matxistak hartu ditzakeen eremu eta adierazpen nagusi batzuk jasotzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko indarreko araudiak eta erreferentziazko protokoloek erabiltzen duten ikuspegia oinarri hartuta.

Taulak erakusten du indarkeria matxista ez dela eremu bakar edo egoera jakin batzuetan soilik gertatzen; bizitzako espazio askotan ager daitekeela, hala nola familian, jai eta aisialdi guneetan, espazio publikoetan edo eremu digitalean. Era berean, indarkeria horrek forma oso desberdinak har ditzake: fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa, soziala edo sinbolikoa, besteak beste.

Gainera, eremu eta indarkeria modu horiek ez dira modu isolatuan ematen; askotan elkar gurutzatzen dira eta aldi berean gertatzen dira. Indarkeria matxista egoera batek hainbat forma har ditzake momentu berean —adibidez, kontrol psikologikoa, presio sexuala eta umiliazio publikoa batera ematea— eta pertsona batek indarkeria hori hainbat espaziotan pairatu dezake aldi berean, bai jai giroan, bai sare sozialetan edo harreman pertsonaletan.

Horrek guztiak erakusten du indarkeria matxistak egiturazko eta askotariko errealitatea direla, eta ezin direla soilik eraso fisiko edo muturreko egoeretara mugatu.

Indarkeria matxista erabiltzen den eremuak

Bikotean edo bikote ohian	Familian	Lan eremuan
Hezkuntza eremuan	Eremu sozialean	Kirol eremuan
Komunitate eremuan	Osasun eremuan	Espazio publikoetan
Jai eta aisialdi guneetan	Eremu birtualean	Komunikabideetan

Indarkeria matxista erabiltzeko moduak

Indarkeria fisikoa	Indarkeria ekonomikoa edo patrimoniala	Indarkeria sexuala	Hautzaroan indarkeria sexuala	Sexu-indarkeria mendekotasun kimikoarekin
-----------------------	--	-----------------------	----------------------------------	---

Indarkeria psikologikoa (mehatxuak, lasteriak, hertsapenak, etab.)	Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena	Indarkeria soziala	Feminizidioa	Emakumeen eta nesken salerosketa
Sexu-esplotazioa	Emakumeen genitalen mutilazioa	Derrigorrezko ezkontzak	Derrigortzea edo askatasuna arbitrarioki kentzea	Tortura
Indarkeria obstetrikoa	Praktika tradizional kaltegarriak	Emakumeen eta nesken duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kaltetu dezakeen beste edozein indarkeria mota	Indarkeria obstetrikoa	Praktika tradizional kaltegarriak

4.2

INDARKERIA MATXISTAK: LEGEAREN ETA ERREALITATE SOZIALAREN ARTEKO ARRAKALA

Azken hamarkadetan aurrerapauso juridiko handiak eman dira emakumeen aurkako indarkeria matxista aitortzeko eta horri aurre egiteko. Bereziki garrantzitsuak izan dira Istanbulko Hitzarmena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legea Euskal Autonomia Erkidegoan, edota sexu- eta genero-aniztasunaren aurkako diskriminazioari aurre egiteko garatutako lege berriak. Lege horiek guztiek ikuspegi zabalago bat txertatu dute, ulertuz indarkeria matxista ez dela soilik bikote barruko indarkeria edo eraso fisiko larriak.

EAEko 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena., adibidez, indarkeria matxista giza eskubideen urraketa eta botere harreman desorekatuen adierazpen bezala definitzen du. Legeak berak aitortzen du indarkeria hori fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa edo sinbolikoa izan daitekeela, eta emakumeen askatasuna, duintasuna edo autonomia mugatzen duen edozein praktika izan daitekeela.

Era berean, azken urteotan garatutako sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko araudiak ere aitortzen du subjektu trans eta genero disidenteek jasaten duten indarkeria ez dela kasu isolatuen batura, baizik eta heteroarauak eta genero sistema binarioak sortzen duen zapalkuntzaren parte.

Hala ere, lege mailan eman diren aurrerapauso horiek ez dira beti modu berean islatu eguneroko bizitzan edo gizartearen ulermenean. Askotan, sozialki, indarkeria matxista “muturreko” egoerekin lotzen da oraindik: jipoi batekin, bortxaketa batekin edo salaketa penal batekin. Horrek esan nahi du eguneroko kontrol, jazarpen, komentario sexistak edo emakumeen askatasuna mugatzen duten praktikak askotan ez direla indarkeria bezala identifikatzen.

Jai eta aisialdi testuinguruetan arrakala hori bereziki handia da. Askotan norma-

lizatuta daude insistitzea, emakumeak sexualizatzea, ukituak, “ligoteo agresiboa”, kontrol jarrerak edo subjektu transmaribibolloi egiten zaizkien irain, burlak eta hipersexualizazio jarrerak. Egoera horiek askotan minimizatzen dira, “jai giroa”, alkohola edo “betidanik horrela izan da” bezalako ideiekin justifikatuz.

Horregatik, protokolo honek ikuspegi feministatik ulertzen du indarkeria matxista, eta legearen definizio formalek harago joan nahi du. Helburua ez da soilik delitu penalak identifikatzea; baizik eta emakumeen eta subjektu transmaribibolloen askatasuna eta segurtasuna baldintzatzen duten eguneroko praktikak ere identifikatzea eta eraldatzea.

Ikuspegi horrek ez du esan nahi protokolo hau lege-esparrutik kanpo kokatzen denik. Aitzitik, indarrean dagoen araudian oinarritzen da, azken hamarkadetan emakumeen aurkako indarkeria matxisten eta sexu- zein genero-aniztasunaren aurkako indarkerien inguruan eman diren aurrerapauso juridikoak bere eginez. Aldi berean, ulertzen du legeak gutxieneko babes-esparru bat ezartzen duela, baina komunitate gisa urrats bat harago joateko aukera eta erantzukizuna ere badugula, indarkeria matxistak prebenitzeko, artatzeko eta eraldatzeko tresna zabalagoak garatuz.

Protokolo hau nazioarteko, estatuko, autonomia erkidegoko eta lurralde historikoko araudian oinarritzen da. Araudi horrek indarkeria matxistak giza eskubideen urraketa gisa aitortzen ditu, emakumeen eta sexu- eta genero-aniztasuneko pertsonen eskubideak babesten ditu eta erakunde publikoei prebentzio, arreta, koordinazio eta erreparazio neurriak garatzeko betebeharra ezartzen die.

Bereziki, honako araudi hauek hartzen dira erreferentziazat:

Europar Kontseiluko emakumeen aurkako eta etxeko indarkeriaren prebentzio eta borrokari buruzko Hitzarmena (Istanbuleko Hitzarmena, 2011).

Nazioarteko erreferentziazko tresna nagusia da emakumeen aurkako indarkeria matxisten arloan. Indarkeria matxista emakumeen aurkako diskriminazio historikoaren ondorio eta giza eskubideen urraketa gisa aitortzen du, eta prebentzioa, babesa, jazarpena eta politika integralak garatzeko betebeharra

ezartzen die administrazio publikoei.

Protokolo honek bere egiten ditu hitzarmen horren ikuspegi integrala eta prebentzioaren, koordinazioaren eta biktimaren eskubideen printzipioak.

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriena.

Genero-indarkeriaren aurkako lehen babes sistema integraletako bat ezarri zuen Estatuan. Bikote edo bikote ohien esparruan ematen den indarkeriari erantzuteko babes juridiko, sozial eta instituzionala garatzen du.

Protokolo honetan erreferentzia garrantzitsua da, nahiz eta haren aplikazio esparrua protokolo honek hartzen duen indarkeria matxistaren ikuspegi zabalagoa baino mugatuagoa izan.

2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko berdintasun politikak garatzeko oinarritzko araua da. Foru erakundeen eta lurraldeko eragileen arteko koordinazioa eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzen ditu.

Getariako protokoloak foru mailako baliabide eta koordinazio egiturekin lotura zuzena du.

8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osoki babestekoa.

Haurren eta nerabeen interes gorena lehenesten du, eta administrazio eta erakunde guztiei prebentzio, detekzio goiztiar eta babes neurriak ezartzeko betebeharra ezartzen die.

Protokolo honetako adingabeen babesari buruzko neurriak lege honetan oinarritzen dira.

10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa.

Lege honek sexu-indarkeriaren ikuspegi integrala garatzen du eta adostasuna sexu-harremanen oinarri nagusi bezala kokatzen du.

Lege honek prebentzioari, biktimen eskubideei, arreta integralari eta erakundeen koordinazioari ematen dien garrantzia protokolo honen oinarrietako bat da.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.

Protokolo honen erreferentzia juridiko nagusietako bat da. Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa eta botere harreman desorekatuen adierazpen gisa definitzen du, eta indarkeriaren forma eta eremu ugari aitortzen ditu.

Gainera, ikuspegi interseksionala txertatzen du eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioa, arreta, koordinazioa eta erreparazioa sustatzen ditu.

4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, transexualen eskubideak benetan bermatzekoa eta sexu-orientazioaren, genero-identitatearen, genero-adierazpenaren edo sexu-ezaugarriengatiko diskriminazioari aurre egitekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko araudi honek sexu- eta genero-aniztasunaren eskubideak bermatzen ditu eta diskriminazioaren nahiz indarkeriaren aurkako babes sistema garatzen du.

Protokolo honetan subjektu transmaribibolloen aurkako indarkeriak aitortzeko, prebenitzeko eta artatzeko ikuspegia araudi honetan ere oinarritzen da.

OHARRA: Protokolo honetan aipatutako araudiak erreferentziazko markoa osatzen du, baina ez dira zerrenda itxi edo agortzaile bat. Indarkeria matxistekin, sexu-indarkeriarekin, haurren eta nerabeen babesarekin, berdintasunarekin edo sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako indarreko gainerako araudia ere aplikatu ahal izango da, bai eta etorkizunean onar daitezkeen lege-aldaketak edo arau-berrikuntzak ere. Protokolo hau interpretatzerakoan eta aplikatzerakoan, une bakoitzean pertsonen eskubideen babes handiena bermatzen duen arau-esparrua hartuko da kontuan.

5. NOLA PREBENITU ETA ZAINDU?

Protokolo honen helburua ez da soilik indarkeria matxista egoera baten aurrean nola jardun zehaztea. Horren aurretik, ezinbestekoa da horrelako egoerak prebenitzea, harreman osasuntsuak sustatzea eta herri osoaren zaintza eta erantzunkidetasuna indartzea. Horregatik, prebentzioa eta zaintza dira Getariako protokolo honen oinarrietako bat.

Indarkeria matxistak ez dira gertakari isolatu edo ustekabekoak. Gizartean eta eguneroko harremanetan sustraitutako desberdintasun eta botere harremanen ondorio dira, eta jai eta aisialdi guneetan ere ager daitezke, askotan modu normalizatuan. Horregatik, prebentzioak ez du esan nahi soilik erasoak saihestea; herri gisa eraiki nahi ditugun harreman eta espazio motak ere definitzea da.

Getariako jaiak eta aisialdi guneak topaketa, ospakizun eta gozamen kolektiborako espazioak dira. Protokolo honek jaiak askatasunez, errespetuz eta segurtasunez bizitzeko eskubidea aldarrikatzen du, emakumeentzat eta subjektu transmaribibolloentzat bereziki. Helburua ez da emakumeek edo genero disidenteek arrisku egoerak saihesteko estrategia gehiago garatzea, baizik eta herri osoak bere gain hartzea jai eta aisialdi espazio seguruagoak eraikitzeke ardura.

Horregatik, prebentzioa ez da udalaren edo mugimendu feministaren ardura bakarrik. Herri osoaren konpromisoa behar du. Udalak, Gazte Asanbladak, herriko elkarteek, jai batzordeek, ostalariek, kirol eta kultur taldeek, merkatariek eta herritarrek beraiek ere zeregin aktiboa dute indarkeria matxisten aurrean.

Prebentzioaren baitan, herrian indarkeria matxistak normalizatzen dituzten jokabideak zalantzan jartzea sustatuko da. Horrek esan nahi du komentario sexistak, txantxa matxistak, adostasunik gabeko jokabideak, subjektu transmaribibolloen aurkako burlak edo pertsona baten askatasuna mugatzen duten egoerak ez direla normaltzat hartuko. Era berean, egoera deseroso baten aurrean isilik ez geratzeko eta laguntza behar duen pertsona bati gerturatzeko kultura sustatuko da.

1. Jai eta herriko ekitaldi nagusietan prebentzio neurri zehatzak garatuko dira. Herritarrei protokoloaren berri emango zaie eta erreferentziazko pertsonak identifikagarriak izango dira, brazalete morearen edo adostutako beste identifikazio elementuren baten bidez. Horien presentziak mezu argi bat helarazi nahi du: Getarian indarkeria matxisten aurrean ez dago bakarrik geratu beharrik eta laguntza eskatzeko erreferenteak badaudela.

2. Era berean, jai eta aisialdi espazioetan arreta berezia jarriko zaie espazioen antolaketari eta segurtasun baldintzei. Antolatzaileek eta udal arduradunek kontuan hartuko dituzte argiztapena, sarbideak, komunitako segurtasuna, gune isolatuak, mugikortasuna eta arrisku egoerak sor ditzaketen bestelako alderdiak, espazio seguruagoak eraikitzeko.

Prebentzio eta zaintza neurriak ez dira soilik ohiko jai guneetara edo jende pilaketa handieneko lekuetara mugatuko; herriko beste espazio eta ibilbide batzuk ere hartuko dira kontuan, hala nola kale eta txoko lasaiagoak, pasabideak, aparkalekuak, bazter guneak edo jendetza txikiagoa biltzen duten eremuak, indarkeria matxistak prebenitzeko ikuspegi integral eta komunitario bat sustatuz.

3. Getariako Udalak eta herriko eragileek informazio eta sentsibilizazio neurriak sustatuko dituzte jai eta ekitaldietan. Horretarako, kartelak, pankartak, informazio materiala eta komunikazio kanpainak erabiliko dira. Material horien bidez herritarrei protokoloaren berri emango zaie, erreferentziazko pertsonak nor diren azalduko da eta indarkeria matxisten aurkako mezu argiak zabalduko dira.

Kartelerian eta komunikazio kanpainetan erabil daitezkeen mezuak, besteak beste, honako hauek izan daitezke:

Getarian, indarkeria matxistek ez dute lekurik.
Jaiak denontzat dira. Errespetuz eta askatasunez bizi ditzagun.
Denon ardura da jai seguruak eraikitzea.
Eraso matxistarik gabeko jaiak guztion ardura dira.
Getarian, askatasunez gozatu nahi dugu.
Transmaribibollofobiak ere ez du lekurik gure jaietan.

4. Getariak indarkeria matxisten aurkako pankarta eta mezu komun bat ditu, herriaren konpromiso kolektiboaren adierazgarri. Protokolo honen baitan, pankarta horren presentzia eta erabilera sustatuko dira jai eta herriko ekitaldi nagusietan, baita egoki ikusten diren beste espazio eta jarduera batzuetan ere, indarkeria matxistekiko tolerantziarik eza eta jai aske eta seguruaren aldeko mezua zabaltzeko. Horretarako, erreferentziazko lelo hau erabiliko da:

ERASORIK GABEKO FESTA, DENONTZAKO GOZAMENA.
GETARIAN EZ DA JARRERA MATXISTARIK ONARTZEN.

Protokolo honek herriko eragileen autonomia eta aniztasuna oinarritzko balioztat hartzen ditu. Horregatik, udalaren mezu eta elementu komunak sustatzearekin batera, herriko eragile bakoitzak bere espazio eta jardueretan egokitzen jotzen dituen pankarta, mezu eta sensibilizazio ekimen propioak erabiltzeko eta garatzeko askatasuna izango du. Helburua ez da irudi edo mezu bakarra homogeneizatzea, baizik eta herri osoan indarkeria matxisten aurkako konpromiso partekatua indartzea.

5. Ostalaritzak, txosnek, jai batzordeek eta gainerako herriko eragileek ere prebentzio lanean parte hartuko dute. Horretarako, protokoloaren berri emango dute, erreferentziazko pertsonak identifikatzen lagunduko dute eta indarkeria matxisten aurrean tolerantziarik ez dagoela argi adieraziko dute. Taberna eta bestelako espazioetan mezu erraz eta gertukoak erabil daitezke, adibidez:

Laguntza behar baduzu? Ez zaude bakarrik.
Eraso matxisten aurrean, hemen ere lagunduko dizugu.

6. Prebentzioaren baitan, prestakuntza eta sentsibilizazioa ere sustatuko dira. Udalak eta herriko eragileek urte osoan zehar prestakuntza saioak eta sentsibilizazio jarduerak antolatzen ahaleginduko dira, bereziki jaietan parte hartzen duten kolektibo eta eragileentzat. Lanketa horietan adostasuna, sexu-indarkeriak, kaleko jazarpena, subjektu transmaribibolloen aurkako indarkeriak, ikuspegi interseksionala eta zaintza komunitarioa bezalako gaiak landuko dira.

7. Halaber, sare sozialak eta udalaren komunikazio kanalak erabiliko dira prebentzio mezuak zabaltzeko, bereziki jai aurretik eta jaietan zehar. Horretarako, honako mezuak erabil daitezke:

Getarian jaiak libre bizi nahi ditugu.
Zaintza ere festa da.
Jaietan ere, elkar zaindu.
Gure jaietan, errespetua eta askatasuna.

Protokolo honek bereziki sustatzen du zaintza komunitarioaren kultura. Horrek esan nahi du herritar guztiek izan dezaketela zeregin bat indarkeria matxisten prebentzioan. Zaintza komunitarioak ez du esan nahi pertsona guztiek egoera guztiak konpondu behar dituztenik, baizik eta inguruan gertatzen denari adi egotea, laguntza behar duen pertsona bati gerturatzea, lagunak zaintzea, egoera deserosoak normalizatu ez eta beharrezkoa denean erreferentziazko pertsonak aktibatzea.

Azken batean, protokolo honek ulertzen du prebentzioa ez dela soilik indarkeria matxistak gertatzea saihestea. Prebentzioa da Getarian askatasuna, berdintasuna, aniztasunaren errespetua eta zaintza erdigunean jartzea; emakumeek eta subjektu transmaribibolloek herriko jai eta aisialdi espazioak

beldurrik gabe bizitzeko eskubidea bermatzea; eta herri osoak, modu kolektiboan, indarkeria matxistarik gabeko Getaria eraikitze konpromisoa hartzea. Hori delako, azken finean, protokolo honen helburu nagusietako bat.

6. NOIZ ETA NON APLIKATUKO DA?

Diagnostiko prozesuan identifikatu zen espazio horietan segurtasun-neurri argiagoak, jarduteko irizpide partekatuak eta koordinazio mekanismo sendoagoak behar direla. Bereziki azaleratu zen jai eta gaueko aisialdi giroetan emakumeek eta subjektu transmaribibolloek askotan autodefentsa estrategiak erabiltzen dituztela, espazio edo ordutegi batzuk saihestuz edo segurtasun falta sentituz. Horregatik, protokolo honek arreta berezia jarriko du jai eta aisialdi espazioetan ematen diren indarkeria matxisten prebentzioan eta erantzunean.

Protokolo hau Getariako udalerrian egiten diren jai, aisialdi eta espazio komunitarioetan aplikatuko da, bereziki emakumeen eta subjektu transmaribibolloen askatasuna, segurtasuna edo ongizatea baldintzatu dezaketen indarkeria matxista egoerak eman daitezkeen testuinguruetan.

Espazioei dagokienez, protokoloa aplikatuko da udal eraikinetan, herriko kale eta plaza publikoetan, jaietako guneetan, txosnetan, kontzertuetan, Gaztetxean, ostalaritza-establezimenduetan, kirol edo kultur jardueretan eta udalerrian egiten diren aisialdi edo jai izaerako jarduera guztietan. Era berean, udalaren, herriko elkartearen edo herri eragilearen ekimenez antolatzen diren ekitaldi puntualetan ere aplikatuko da, bereziki jendetza handia, gaueko giroa edo alkohol kontsumoa egon daitezkeen testuinguruetan.

Protokolo hau bereziki aktibatuko da Getariako urteko jai eta ospakizun nagusietan, hala nola:

- San Anton jaietan
- Getariako Salvatore Jaietan
- Gazte Jaietan
- Kirol edo kultur ekitaldi berezietan

- Kontzertu eta musika jaialdietan

Era berean, protokoloa aplikatuko da urtean zehar antolatu daitezkeen ekitaldi puntualetan ere, hala nola:

- Kontzertu berezietan
- Herri bazkarietan edo afari
- Kirol ospakizunetan
- Kuadrillen edo elkarten ekimenetan
- Gaztetxeko jardueretan
- Jai giroko izaera izan dezakeen beste edozein ekitalditan

Gazte Asanbladak gaur egun bere protokolo propioa du Gaztetxean eta haiek antolatutako jardueretan indarkeria matxisten aurrean jarduteko. Protokolo honek erabat aitortzen eta errespetatzen du Gazte Asanbladaren autonomia eta aurretiazko lanketa feminista. Horregatik, Gazte Asanbladak zuzenean antolatutako espazio, jarduera eta ekitaldietan —bereziki Gaztetxean edo haiek antolatutako jai eta ekimenetan— haien protokoloa izango da aplikatuko den erreferentzia nagusia.

Hala ere, bi protokoloen artean koordinazioa sustatuko da, batez ere, informazio fluxuak errazteko, baliabideak partekatzeko, lehen arreta koordinatzeko, eta herri mailako erantzun koherenteak eta eraginkorrak ahalbidetzeko, berme guztiekin.

Helburua ez da herrian dagoen lanketa komunitarioa ordezkatzeko edo zentralizatzea, baizik eta udalaren eta herriko eragileen artean elkarlanerako marko komun bat eraikitzea, espazio bakoitzaren autonomia eta ezaugarriak errespetatuz.

7. ZER EGIN ERASO BATEN AURREAN?

7.1 NORK AKTIBA DEZAKE PROTOKOLOA?

Indarkeria matxista egoera baten aurrean, protokoloa aktibatzeke ez da beharrezkoa izango pertsona erasotuak zuzenean laguntza eskatzea. Izan ere, askotan inguruko pertsonak antzematen dituzte egoerak, edo pertsona erasotuak berak ez du une horretan laguntza eskatzeko aukerarik edo indarrik izaten.

Horregatik, protokoloa aktibatu ahal izango da:

- Pertsona erasotuak hala eskatzen duenean;
- Lagun edo senideren batek egoeraren berri ematen duenean;
- Herriar batek indarkeria matxista egoera bat ikusten edo susmatzen duenean;
- Taberna, txosna edo ekitaldi bateko antolatzaileek egoera bat identifikatzen dutenean;

Protokolo honen helburua ez da pertsona erasotua gain uztea laguntza eskatzeko ardura osoa. Herri osoaren ardura da indarkeria matxisten aurrean zaintza eta erantzunkidetasuna sustatzea, eta horregatik, egoera baten berri duen edozein pertsonak laguntza aktibatzen lagundu ahal izango du.

LAGUNTZA ESKATZEN EDO ERASO BATEN BERRI EMATEN DUTEN PERTSONEN BABESA

Protokolo honen baitan, indarkeria matxista egoera baten berri ematen duten edo pertsona erasotu bati laguntza eskaintzen dioten pertsonak ere babes eta aitortza jasoko dute.

Indarkeria matxisten aurrean erantzun komunitarioa sustatzea protokolo honen helburuetako bat denez, ezinbestekoa da egoera baten aurrean jarduten duten pertsonak zigortuak, isolatuak edo kriminalizatuak ez izatea.

Horregatik, hirugarren pertsona batek indarkeria matxista egoera baten berri

ematen duenean, erreferentziazko pertsonak eta Koordinazio Taldeak pertsona horren egoera ere baloratuko dute, bereziki honako egoeretan:

- mehatxuak jasotzen dituenen;
- jazarpen sozial edo digitala pairatzen duenean;
- presio edo larderia egoerak bizi dituenen;
- salaketa edo ekintza judizialen ondorioz babesgabetasun egoeran dagoen;
- edo gertatutakoaren ondorioz laguntza emozional edo juridikoa behar duenean.

Kasu horietan, pertsona horri informazioa, orientazioa eta beharrezko baliabideen berri emango zaio, eta, beharrezkoa denean, laguntza psikologiko, sozial edo juridikorako zerbitzuetara bideratuko da.

Babes hori bereziki garrantzitsua izango da indarkeria matxista egoerak salatzen dituzten emakumeen, subjektu transmaribibolloen, adingabeen edo kolektibo zaurgarrien kasuan.

Protokolo honek ulertzen du indarkeria matxisten aurrean isiltasuna haustea eta laguntza eskaintzea herriaren zaintza komunitarioaren parte dela. Horregatik, Getariak konpromisoa hartzen du egoera horien aurrean jarduten duten pertsonak babesteko eta haien aurkako errepresalia, jazarpen edo kriminalizazio egoerak ez normalizatzeko.

7.2 NOLA AKTIBATZEN DA PROTOKOLOA?

Jai eta herriko ekitaldietan erreferentziazko pertsonak egongo dira, herritarrek erraz identifikatu ahal izango dituztenak. Horretarako, brazaletxe morea edo adostutako beste identifikazio elementu bat eramango dute.

ERREFERENTZIAZKO PERTSONAK

Erreferentziazko pertsonak izango dira protokoloaren lehen harrera egiteko figura nagusia. Haien eginkizuna ez da gertatutakoa ikertzea, epaitzea edo erabakiak hartzea, baizik eta lehen laguntza, babesa eta akonpainamendua eskaintzea.

Erreferentziazko pertsonak izango dira protokoloaren lehen harrera egiteko figura nagusia. Haien eginkizuna ez da gertatutakoa ikertzea, epaitzea edo erabakiak hartzea, baizik eta lehen laguntza, babesa eta akonpainamendua eskaintzea.

Erreferentziazko pertsonak lehen harrera eskainiko dute bai pertsona erasotuak zuzenean laguntza eskatzen duenean, bai hirugarren pertsona batek egoera baten berri ematen duenean. Halakoetan, ahal den neurrian, pertsona erasotuaengana gerturatuko dira modu diskretuan, haren ongizatea eta segurtasuna lehenetsiz, eta laguntza behar duen galdetuz.

Haien egiteko nagusiak izango dira:

- pertsona entzutea eta sinestea;
- lehen babes emozionala eskaintzea;
- pertsona espazio seguru batera laguntzea, beharrezkoa bada;
- ez epaitzea eta ez presionatzea;
- egoeraren lehen arreta egitea;
- eta, beharrezkoa denean, Koordinazio Taldeari egoeraren berri ematea.

Lehen harrera horretan, pertsonaren erritmoak eta erabakiak errespetatuko dira une oro. Ez zaio gertatutakoa xehetasunez kontatzeko eskatuko, ezta salaketa jartzera edo erabaki jakin batzuk hartzera bultzatuko ere.

KOORDINAZIO TALDEA

Erreferentziazko pertsonak egoeraren berri eman ondoren, beharrezkoa denean Koordinazio Taldea aktibatuko da.

Koordinazio Taldea izango da protokoloaren koordinazio eta jarraipen egitura nagusia. Talde horren egitekoa izango da jasotako egoeraren lehen balorazio integratua egitea, gertakariak eta testuingurua kontuan hartuta, eta egoera bakoitzari egokitutako erantzuna koordinatzea.

Horretarako, Koordinazio Taldeak:

- egoeraren lehen balorazioa egingo du;
- pertsona erasotuaren segurtasuna eta ongizatea bermatzeko beharrezko neurriak aztertuko ditu;

- behar diren udal edo kanpoko baliabideak aktibatuko ditu;
- beharrezkoa denean, osasun zerbitzuekin, larrialdiekin, Ertzaintzarekin edo bestelako baliabide espezializatuekin koordinatuko da;
- herri mailako edo instituzio mailako erantzun publikoa ematea egokia den baloratuko du;
- eta egoeraren ondorengo jarraipena egingo du.

Koordinazio Taldeak bere jardunean konfidentzialtasuna, pertsona erasotuaaren borondatea eta ongizatea, eta ikuspegi feminista eta interseksionala izango ditu oinarri.

Halaber, argi utzi nahi da Koordinazio Taldearen egitekoa ez dela soilik eraso baten aurrean erantzutea. Bere lana izango da, baita ere, herriko eragileen arteko koordinazioa sustatzea, protokoloaren aplikazioa zaintzea eta egoera bakoitzari egokitutako erantzun zaintzailea eta komunitarioa bermatzea.

Indarkeria matxista egoera baten aurrean, helburua ez da soilik egoera "konpontzea". Helburua da pertsona erasotuaaren segurtasuna, ongizatea eta erabakiak erdigunean jarriko dituen erantzun koordinatu, zaintzaile eta argi bat ematea. Horretarako, protokolo honek jarduteko pautak komunak ezartzen ditu, bai herriko eragileentzat bai Koordinazio Taldearentzat.

Koordinazioaren ardura nagusia Koordinazio Taldeak izango du. Talde hori osatuko dute:

- Alkateak,
- Gizarte Langileak,
- Berdintasun zinegotziak,
- Udaltzainak,
- Gazte Asanbladako bi ordezkariak,

eta beharrezkoa denean, ekitaldi edo jardueraren antolatzailearen ordezkari batek.

Koordinazio Taldearen eginkizunak izango dira:

- Egoeraren lehenengo balorazioa egitea.
- Lehen arreta koordinatzea.
- Beharrezko baliabideak aktibatzea
- Erantzun publikoa baloratzea, eta horrela badagokio adostea.
- Eta ondorengo jarraipena egitea.

7.3 OINARRIZKO PAUTAK EGOERA GUZTIETAN

Indarkeria matxista egoera baten aurrean, lehen helburua ez da gertatutakoa berehala “argitzea” edo “epaitzea”, baizik eta pertsonaren segurtasuna, ongizatea eta lasaitasuna bermatzea. Horregatik, egoera edozein dela ere, esku-hartze guztiek oinarrizko irizpide komun batzuk izango dituzte oinarri.

Lehenik eta behin, pertsona erasotua ez da bakarrik utziko. Askotan, eraso edo jazarpen egoera baten ondoren pertsonak shock egoeran, blokeatuta, urduri edo desorientatuta egon daitezke, eta une horretan gertuko laguntza eta lasaitasuna funtsezkoak dira. Horregatik, lehen arreta ematen duen pertsonak edo erreferenteak espazio seguruago batera lagundu beharko du, beharrezkoa bada.

Era berean, entzute aktiboa egingo da. Horrek esan nahi du pertsonaren hitza sinestea, ez epaitzea eta ez zalantzan jartzea. Ez dira egingo erruduntasuna, lotsa edo babesgabetasuna handitu dezaketen galderak edo komentarioak. Horregatik, saihestu egingo dira:

- “Ziur?” moduko galderak,
- “Zergatik joan zinen?” edo “Zergatik ez zenuen alde egin?” bezalako komentarioak,
- “Agian ez zuen horrela esan nahi” moduko minimizazioak,
- edo gertatutakoa behin eta berriz kontaraztea.

Halaber, ez da pertsona presionatuko salaketa jartzera, publikoki hitz egitera edo modu jakin batean jokatzera. Protokolo honek ulertzen du pertsona bakoitzak bere erritmoak, beharrak eta erabakiak dituela, eta horiek errespetatu egin behar direla.

Diskrezioa eta konfidentzialtasuna ere oinarrizko printzipioak izango dira. Herri txiki batean, gainera, zurrumurruak eta informazioa oso azkar zabal daitezkeenez, bereziki zainduko da erasoak jasan duen pertsonaren identitatea eta intimitatea.

Era berean, kontuan hartuko da indarkeria matxista egoera batek ez duela soilik inpaktu fisikoa izan dezakeenik. Egoera batzuek ondorio emozional, sozial edo psikologiko oso handiak sor ditzakete, nahiz eta kanpotik “txikiagoak” edo “arinagoak” iruditzen. Horregatik, lehen arreta eta balorazioa ez dira egingo soilik gertakariaren itxuraren arabera, baizik eta pertsonaren bizipenak eta testuingurua ere kontuan hartuta.

7.4 PAUTA ZEHATZAK EGOERAREN ARABERA

Nahiz eta protokolo honek pauta eta orientazio orokor batzuk ezarri, egoera guztiak ez dira berdinak eta, horregatik, esku-hartzea kasuan kasu baloratu eta egokitu beharko da. Indarkeria matxistek forma, intentsitate eta ondorio oso desberdinak izan ditzakete, eta egoera bera modu oso ezberdinean bizi daiteke pertsona batetik bestera. Horregatik, esku-hartze egoki bat egiteko ezinbestekoa izango da testuingurua, pertsonaren bizipena, botere harremanak, errepikapena, zaurgarritasun egoerak edo egoerak sortu duen inpaktua kontuan hartzea.

Hala ere, egoeren aurrean modu koordinatuagoan, azkarragoan eta argiagoan jardun ahal izateko, protokolo honek orientazio modura hiru eraso mota bereizten ditu, eraso arinak, larriak eta oso larriak. Sailkapen horiek ez dira zurrunik edo itxiak; helburua ez da egoerak etiketa finkoetan sartzea, baizik eta lehen balorazio bat egiteko eta egoera bakoitzari egokitutako esku-hartzea antolatzeke oinarri komun batzuk eskaintzea.

Garrantzitsua da ulertzea egoera baten larritasunaren balorazioa eta pertsonak bizi duen inpaktua ez direla gauza bera, nahiz eta biak kontuan hartu behar diren. Baliteke kanpotik “arin” bezala identifikatutako egoera batek pertsonarengan inpaktu emozional oso handia izatea, aurretiazko bizipenengatik, zaurgarritasun egoeragatik, errepikapenagatik edo testuingurua-

gatik. Era berean, jokabide bera modu desberdinean bizi daiteke pertsona batetik bestera.

Horregatik, balorazioa ez da inoiz egingo gertakari isolatu baten arabera soilik. Kontuan hartuko dira:

- testuingurua,
- errepikapena,
- botere harremanak,
- pertsonaren zaurgarritasun egoera,
- mehatxu edo kontrol egoerak,
- erasotzailearen jarrera, eta egoerak pertsonarengan izan duen inpaktu emozional, sozial edo fisikoa.

Adibidez, hasiera batean eraso arintzat har daitekeen komentario sexista bat larritasun handiagoa izan dezake; sistematikoki errepikatzen bada, talde presio baten barruan ematen bada, pertsona beldurtuta sentiarazten badu, edo aurretik jazarpen egoerak egon badira.

Era berean, jai giroetan askotan alkohola, jendetza edo “jaietako dinamika” erabiltzen dira egoerak minimizatzeko. Protokolo honek argi uzten du elementu horiek ez direla indarkeria matxista justifikatzeko edo garrantzia kentzeko arrazoiak.

Balorazio-prozesua ikuspegi feministatik eta intersektzionaletik egingo da, ulertuz pertsona guztiek ez dituztela baldintza berdinak. Adinak, genero identitateak, sexu-orientazioak, jatorriak, aniztasun funtzionalak, ospeak edo herri txiki bateko harreman sareek eragina izan dezakete egoera bat bizitzeko moduan eta ondorioetan.

Horregatik, egoeraren balorazioa egiteko garaian, honako irizpide batzuk hartu ahal izango dira kontuan:

BALORAZIO IRIZPIDEA	KONTUAN HARTU BEHARREKO GALDERAK
Inpaktu emozionala	Pertsona beldurtuta, blokeatuta, urduri edo babesgabe sentitu da?
Errepikapena	Jokabidea behin baino gehiagotan gertatu da? Sistematikoki eman da?
Botere harremanak	Adin, genero, ospe edo talde botere desorekak daude?
Mehatxu edo kontrol egoerak	Presioa, beldurra edo kontrola egon da?
Kontaktu fisikoa	Adostasunik gabeko ukiturik edo gorputzaren inbasiorik egon da?
Zaugarritasun egoerak	Pertsona adingabea, mozkortuta, isolatuta edo egoera zaugarrian zegoen?
Erasotzailearen jarrera	Jokabidea eten du? Minimizatu du? Errepikatzeko arriskua dago?
Aurretiazko egoerak	Aurretik antzeko egoerarik edo jazarpenik egon da?
Talde dinamika	Talde presiorik, barre kolektiborik edo konplizitaterik egon da?

Herri txiki baten ezaugarriek ere eragina dute. Getarian, harreman sareak oso gertukoak direnez, askotan erasotzailea, biktima eta inguruko pertsonak elkar ezagutzen dira, eta horrek presio sozialak, zurrumurruak edo isiltasun dinamikak indartu ditzake. Horregatik, kasu bakoitzean arreta berezia jarriko da testuinguru komunitarioan, pertsonaren babes sareetan eta egoerak izan ditzakeen ondorio sozialetan.

ERASO ARINAK

Eraso arintzat joko dira pertsona baten ongizatea, erosotasuna edo askatasuna urratzen duten jokabideak, intentsitate txikiagokoak edo isolatuak direnean, baina indarkeria matxistaren logiken parte direnean. Askotan sozialki normalizatuta edo minimizatuta egoten dira, baina giro deserosoak, beldurra edo bazterketa sor ditzakete, eta denboran errepikatuz gero edo testuinguru jakin batzuetan larriago bihur daitezke.

Adibidez:

- komentario sexistak,
- irainak,
- gorputzari buruzko komentarioak,
- subjektu transmaribiboloei egindako burlak,
- edo pertsona deseroso sentiarazten duten jokabideak.

Zer egin?

- Egoera identifikatu eta ez normalizatu.
- Posible bada, egoera gelditzen saiatu modu lasaian.

Pertsona erasotuari laguntza eskaini:

- "Ondo zaude?"
- "Laguntzarik behar duzu?"
- "Zer behar duzu?"
- "Zer egin nahi duzu?"

Pertsona erasotzailearekin:

Erasotzaileari jokabidea onartezina dela argi eta modu zuzenean adierazi beharko zaio, egoera normalizatu edo minimizatu gabe. Helburua ez da soilik momentuko egoera etetea; baita espazio horretan horrelako jokabideek lekurik ez dutela markatzea ere. Horregatik, modu lasaian baina irmoan adieraziko zaio bere jokabidea eten egin behar duela eta emakumeek eta subjektu transmaribibolloek espazio horiek segurtasunez eta errespetuz bizitzeko eskubidea dutela.

Garrantzitsua izango da, gainera, mezua ez pertsonaren izaerara eramatea ("pertsona txarra zara"), baizik eta jokabide konkretua seinalatzea: egindakoa desegokia dela, deserosoa edo bortitza izan dela eta ez dela onargarria herriko jai eta aisialdi espazioetan. Era berean, argi adieraziko da horrelako jokabideak ez direla "txantxa", "ligoteo normala" edo "jai giroko kontuak", eta komunitateak ez dituela ongietorritzat edo normaltzat hartzen.

Zer sahiestu?

- "Txantxa bat izan da" esatea.
- Egoera minimizatzea.
- Pertsona erasotuari gehiegizko ardura jartzea.

ERASO LARRIAK

Eraso larritzat joko dira pertsonaren osotasun fisikoa, espazio pertsonala edo askatasuna modu nabarmenagoan urratzen duten jokabideak, bereziki adostasunik gabeko kontaktu fisikoa, kontrol egoerak edo mehatxu eta beldur egoerak sortzen dituztenean. Oro har, eraso larriak intentsitate handiagokoak dira, errepikatuak izan daitezke edo pertsonarengan inpaktu emozional edo fisiko handiagoa eragin dezakete.

Adibidez:

- ipurdia edo gorputza ukitzea,
- espazio fisikoa inbaditzea,
- bultzatzea,
- edo adostasunik gabeko kontaktu fisikoa.

Zer egin?

- Egoera berehala gelditzen saiatu.
- Pertsona erasotua espazio seguruago batera lagundu, ahal bada, berarentzat konfiantzazkoa den pertsona batekin.

Pertsona erasotuarekin:

- **Laguntza emozionala eskaini:** ez galdetu lehen momentuan xehetasun gehiegirik.
 - “Ondo zaude?”
 - “Laguntzarik behar duzu?”
 - “Zer behar duzu?”
 - “Zer egin nahi duzu?”
- Koordinazio Taldea aktibatu.

Pertsona erasotzailearekin:

Eraso larri baten aurrean, erasotzailearekin jardutea ere modu koordinatuan, lasaitasunez eta irmotasunez egin beharko da. Helburua ez da soilik egoera momentuan etetea; pertsona erasotuaren segurtasuna bermatzea, tentsioa ez handitzea eta espazioan indarkeria matxistek ez dutela lekurik argi uztea ere bada. Horregatik, erasotzaileari modu argi eta zuzenean adieraziko zaio bere jokabidea onartezina izan dela eta berehala eten behar duela.

Egoeraren arabera, erasotzailea pertsona erasotuaren ingurutik edo

espaziotik urruntzea baloratuko da, batez ere segurtasun edo tentsio egoerak mantentzen badira. Urruntze hori ahalik eta modu lasaien eta gatazka gutxien sortuz egingo da, baina irmotasunez.

Koordinazio Taldeak baloratuko du beharrezkoa den:

- Erasotzaileari espaziotik alde egiteko eskatzea,
- jarduera edo ekitalditik kanporatzea,
- edo segurtasun baliabide gehiago aktibatzea.

Berehalako arrisku egoerarik edo mehatxurik badago, Udaltzaingoa edo larrialdi zerbitzuak aktibatzea ere baloratuko da.

Halaber, kontuan hartuko da erasotzailearen jarrerak ere garrantzia duela egoeraren balorazioan. Ez da berdin izango:

- jokabidea gelditzea eta espazioa uztea,
- edo oldarkortasuna, mehatxuak, ukazioa edo berriz gertatzeko arriskua egotea.

Horregatik, erasotzailearen erreakzioa, inguruko taldearen jarrera eta egoeraren bilakaera ere kontuan hartuko dira esku-hartzea egokitzeko.

Azkenik, protokolo honek ulertzen du erasotzailearekin egindako esku-hartzeak ere funtzio komunitario eta pedagogiko bat izan dezakeela. Helburua ez da soilik pertsona konkretu bati "zigorra" jartzea; baita herriko jai eta aisialdi espazioetan indarkeria matxistak ez direla onargarriak markatzea eta tolerantzia sozialik ez dutela argi uztea ere.

ERASO OSO LARRIAK

Protokolo honen baitan, eraso oso larritzat joko dira pertsonaren askatasun sexuala, osotasun fisikoa edo segurtasuna modu larrian urratzen duten jokabideak, bereziki adostasunik gabeko izaera sexualeko ekintzak, mehatxu egoerak edo pertsona zaurgarrien egoeraz aprobetxatzen diren praktikak, Zigor Kodean jasotako delitu izan daitezkeenak barne. Protokolo honek ulertzen du sexu-indarkeria ez dela soilik indarkeria fisiko esplizitua; presioak, blokeoak, beldurrak, botere desorekek edo pertsonaren ezintasun egoerek ere adostasuna baldintzatu edo baliogabetu dezaketela.

Adibidez:

- musuak edo kontaktu sexualak behartzea;
- ukitu sexualak adostasunik gabe egitea;
- pertsona baten gorputza immobilizatzea edo ihes egitea zailtzea;
- sexu-harremanak adostasunik gabe izatea;
- pertsona mozkortuta, drogapean, blokeatuta edo zaurgarri dagoela aprobetxatzea;
- mehatxu edo beldur egoeraren bidez kontaktu sexuala lortzea;
- talde erasoak edo talde presio sexualak;
- subjektu transmaribibolloen aurkako eraso fisiko larriak edo jipoiak, gorroto-indarkeriarekin lotura zuzena dutenak;
- irudi edo grabazio sexualak baimenik gabe egitea edo zabaltzea;
- edo pertsonaren segurtasun fisikoa edo emozionala arrisku larrian jartzen duten jokabideak.

Egoera horien aurrean, esku-hartzearen lehentasun nagusia izango da pertsona erasotua segurtasuna eta ongizatea bermatzea. Horregatik:

Lehen esku-hartzea:

- Pertsona erasotua berehala espazio seguru eta lasai batera eramango da. Ahal bada, konfiantzazko pertsona batekin lagunduta.
- Ez da inoiz bakarrik utziko.

- Entzute aktiboa egingo da, sinetsiz eta epaitu gabe.
- Ez da gertatutakoa xehetasun guztiekin kontatzera behartuko.
- Ez da presionatuko salaketa jartzera edo modu jakin batean jokatzera.
- Pertsonaren erritmoa eta erabakiak errespetatuko dira.
- Une horretan, garrantzitsuena ez da "frogak" edo kontakizun zehatzak lortzea; pertsona seguru sentitzea eta babes egoera bat sortzea baizik.

Koordinazio Taldearen aktibazioa:

Eraso oso larri baten aurrean, Koordinazio Taldea berehala aktibatuko da. Taldeak egoeraren lehen balorazioa egingo du eta beharrezko baliabideak koordinatuko ditu. 24 orduko epean.

Baloratuko da:

- osasun zerbitzuak aktibatzea;
- larrialdi zerbitzuetara deitzea;
- Ertzaintza aktibatzea;
- edo gizarte zerbitzuen eta babes baliabideen koordinazioa egitea.

Sexu-eraso baten aurrean, pertsonari informazioa emango zaio osasun arreta, laguntza psikologikoa eta eskubide juridikoei buruz, baina betiere presiorik gabe eta erabakia berea dela errespetatuz.

Erasotzailearekin esku-hartzea:

Erasotzailea pertsona erasotuaaren espaziotik berehala urrunduko da.

Egoeraren arabera:

- jardueratik edo espaziotik kanporatzea baloratuko da;
- segurtasun neurri osagarriak hartuko dira;

- eta arrisku egoerarik badago, segurtasun indarrak aktibatuko dira.

Era berean, saihestu egingo dira konfrontazio publiko handiak edo pertsona erasotua gehiago esposatzen duten egoerak.

Oso garrantzitsua


- Ez da beharrezkoa salaketa jartzea arreta jasotzeko.
- Ez da pertsona behartuko mediku, polizia edo komunikazio publikoetara joatera.
- Pertsonaren autonomia eta erabakiak errespetatuko dira une oro.
- Diskrezioa eta konfidentzialtasuna bermatuko dira.
- Herri txiki batean, gainera, bereziki zainduko dira zurrumurruek, esposizio publikoa edo biktimaren gaineko presio soziala.



Ondorengo jarraipena:

Eraso oso larrien ondorioak ez dira momentu puntual batera mugatzen. Horregatik, Koordinazio Taldeak ondorengo jarraipena egingo du:

- babes beharrak baloratuz;
- baliabideetara bideratzea erraztuz;
- eta pertsonak nahi duen neurrian akonpainamendua eskainiz.



8. ADINGABEAK ETA BABES BEREZIA BEHAR DUTEN EGOERAK

Protokolo honen baitan, arreta berezia jarriko zaie adingabeei eta zaurgarritasun egoera berezietan dauden pertsonari. Izan ere, indarkeria matxistek ez dute pertsona guztiengan eragin bera, eta zenbait egoeratan babesgabetasun, mendekotasun edo arrisku handiagoak egon daitezke. Horregatik, protokolo honek ikuspegi intersektionala hartzen du oinarri, eta egoera bakoitza pertsonaren adina, bizi-baldintzak, autonomia maila eta testuingurua kontuan hartuta baloratuko da.

Adingabeekin gertatzen diren egoeretan, haien interes gorena izango da jarduketa guztien ardatza, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren Aurrean Osoki Babesteko 8/2021 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritz. Horrek esan nahi du hartzen diren erabaki guztiek adingabearen segurtasuna, ongizatea eta eskubideen babesa lehenetsi beharko dituztela.

Era berean, babes berezia beharko dute, besteak beste:

- desgaitasunen bat duten pertsonak;
- dibertsitate funtzionala duten pertsonak;
- osasun mentaleko zailtasunak dituzten pertsonak;
- mendekotasun egoeran daudenak;
- hizkuntza oztopoak dituzten pertsonak;
- bakarrik dauden adingabeak;
- migratzaileak edo administrazio egoera zaurgarrian dauden pertsonak;
- eta indarkeria matxisten aurrean babesgabetasun handiagoa izan dezaketen beste edozein pertsonak.



8.1 ADINGABEEKIN ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK

Adingabe batek indarkeria matxista egoera bat bizi izan duela edo bizi dezakeela antzematen denean, lehen lehentasuna haren segurtasuna eta ongizatea bermatzea izango da.

Egoera horietan:

- adingabeari entzun egingo zaio, bere adinera eta heldutasunera egokitutako hizkuntza erabiliz;
- ez da epaituko edo zalantzan jarriko;
- ez zaio gertatutakoa behin eta berriz kontatzeko eskatuko;
- eta bere erritmoak eta emozioak errespetatuko dira.

Lehen arreta eskaintzeko eta babesa bermatzeko ez da beharrezkoa izango gurasoen edo legezko tutoreen aurretiazko baimena. Hala ere, egoeraren ezaugarrien arabera, Koordinazio Taldeak baloratuko du noiz eta nola egin familiarekiko komunikazioa.

Familiarekin harremanetan jartzea ez da automatikoa izango. Baloratuko da:

- familia babes iturri izan daitekeen;
- adingabearentzat arriskurik edo presiorik sor dezakeen;
- edo gertatutakoarekin lotura izan dezakeen.

Horregatik, adingabearen segurtasuna eta interes gorena lehenetsiko dira beti.

8.2 ADINGABEEN ETA PERTSONA ZAURGARRIEN AURREKO INDARKERIA MATXISTAK

Protokolo honen baitan, arreta berezia jarriko zaie honako egoerei:

- adingabeen aurkako sexu-indarkeriei;
- helduen eta adingabeen arteko botere desoreka nabarmena dagoen egoerei;
- sare sozialen edo ingurune digitalen bidezko jazarpenei;
- kontrol edo manipulazio egoerei;
- sexu-irudi edo edukien zabalkunde ez baimenduei;
- subjektu transmaribibollo adingabeen aurkako indarkeriei;
- eta zaurgarritasun egoeraz baliatuz gertatzen diren erasoei.

Egoera horiek bereziki larritzat joko dira, eta balorazioan kontuan hartuko da adinak, mendekotasunak edo bestelako zaurgarritasunek eragin dezaketen


babesgabetasun handiagoa.

KONFIDENTZIALITASUNA ETA ZAINZA

Adingabeekin eta babes berezia behar duten pertonekin gertatutako egoeretan arreta berezia jarriko da informazioaren tratamenduan.

Ez dira identitateak zabalduko, ezta pertsona identifikatzeko aukera eman dezaketen datuak ere. Herri txiki batean bizi garela kontuan hartuta, bereziki zainduko dira zurrumurruak, informazio ez baieztatua eta pertsonen esposizio publikoa.

Era berean, herri mailako edo instituzio mailako erantzun publikoak baloratzerakoan, adingabearen edo zaurgarritasun egoeran dagoen pertsonaren babes beharrak lehenetsiko dira beti.



9. NOLA ERANTZUN HERRI MAILAN?

Indarkeria matxisten aurkako borroka ez da soilik eraso baten aurrean pertsona erasotuari arreta ematea edo baliabide teknikoak aktibatzea. Herri batek horrelako egoeren aurrean nola erantzuten duen ere adierazpen politiko eta komunitario bat da. Erantzun publikoak erakusten du zein balio defendatzen dituen komunitate batek, zer ez duen onartzen eta nola zaintzen dituen bertako pertsonak.

Getariako protokolo honek ulertzen du herri mailako erantzunak hiru helburu nagusi izan behar dituela: pertsona erasotuari babesa eta aitortza eskaintzea, indarkeria matxistak modu argian gaitzestea eta herri osoari mezu argi bat helaraztea, Getarian ez dagoela horrelako jokabideentzako lekurik.

Hala ere, erantzun publikoak ez dira modu automatikoan aktibatuko, ezta egoera guztietan berdina izango ere. Egoera bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta erantzuna ere horietara egokitu beharko da. Horregatik, kasuan kasu

baloratuko da zer erantzun den egokiena, betiere pertsona erasotua-
ren ongizatea, segurtasuna, nahiak eta erabakiak erdigunean jarritz.

Protokolo honek, era berean, aitortzen du Getarian badagoela urte luzez
eraikitako sare komunitario eta feminista bat. Herriko mugimendu feministak,
Gazte Asanbladak eta gainerako herri eragileek beren autonomia mantenduko
dute indarkeria matxisten aurrean egokitze jotzen dituzten mobilizazio,
adierazpen edo bestelako ekimen publikoak antolatzeke. Protokolo honek ez du
autonomia hori mugatu edo ordezkatu nahi, baizik eta udalaren eta herriko
eragileen artean koordinazioa, elkarlana eta informazio partekatua sustatzeko
tresna izan nahi du.

Aldi berean, protokolo honek ulertzen du, ahal den guztietan eta pertsona
erasotua-
ren ongizatea lehenetsiz, herri osoaren erantzun koordinatuak babes
handiagoa eta mezu argiagoa eskain dezakeela. Horregatik, egoeraren
arabera, Koordinazio Taldeak herriko eragileekin harremanetan jartzea eta
erantzun bateratu bat proposatzea baloratu ahal izango du.

Erantzun publiko edo instituzional bat planteatzerakoan, honako printzipio hauek
izango dira oinarri:

- Pertsona erasotua-
ren duintasuna, intimitatea eta erabakiak errespetatzea.
- Indarkeria matxistak egiturazko arazo sozial gisa ulertzea eta modu argian
gaitzestea.
- Biktima-
ren birbiktimizazioa eta esposizio publikoa saihestea.
- Gertatutakoa minimizatu edo justifikatzen duten diskurtsoak baztertzea.
- Erantzunak egoeraren larritasunera eta ondorioetara egokitzea.
- Herriaren konpromiso kolektiboa eta zaintza komunitarioa sustatzea.

Erantzun publiko edo instituzional bat baloratzerakoan, Koordinazio Taldeak
hainbat alderdi izango ditu kontuan: egoeraren larritasuna eta inpaktua,
pertsona erasotua-
ren nahiak, haren segurtasuna eta babes beharrak,
gertakariak herrian izan dezakeen eragina, errepikatze-
ko arriskua, inplikaturako
pertsonen zaurgarritasun egoerak eta, bereziki, adingabeen presentzia edo
babes bereziko egoerak.

Erantzun publiko edo instituzionalek forma desberdinak har ditzakete. Egoeraren arabera, besteak beste, honako neurri hauek baloratu ahal izango dira:

- udalaren edo herriko eragileen adierazpen publikoak;
- komunikatu bateratuak;
- elkarretaratze edo kontzentrazioak;
- ekitaldi edo jai guneetan geldialdi sinbolikoak;
- pankartak edo mezu publikoak;
- sentsibilizazio eta prebentzio ekintza bereziak;
- edo erreparazio eta aitortza sinbolikoko bestelako neurriak.

Erantzun horien helburua ez da gertatutakoaren xehetasunak zabaltzea edo pertsona erasotua esposatzea. Helburua da babesa adieraztea, komunitatearen konpromisoa erakustea eta indarkeria matxistekiko tolerantziarik ez dagoela modu argian adieraztea.

Jarraian aurkezten den taulak orientazio izaera du. Ez du automatismorik ezartzen, eta egoera bakoitza banaka baloratuko da.

EGOERA	BALIZKO ERANTZUNA
Eraso arinak edo inpaktu mugatuko egoerak	Erreferenteen esku-hartzea, egoeraren etetea, prebentzio mezuak indartzea eta antolakuntzaren barne koordinazioa.
Eraso arinak errepikatzea edo giro matxista sistematikoa sortzea	Herriko eragileen arteko lanketa, komunikazio prebentiboak eta neurri zuzentzaileak baloratzea.
Eraso larriak	Koordinazio Taldearen balorazioa, komunikatu instituzional edo komunitario bat eta herriko eragileen koordinazioa baloratzea.

Eraso oso larriak	Adierazpen instituzionala, herriko eragileen komunikatu bateratua, elkarretaratzea edo bestelako ekintza sinbolikoak baloratzea.
Herrian eragin edo alarma berezia sortzen duten egoerak	Herri mailako erantzun koordinatua, udalaren eta herriko eragileen arteko komunikazio bateratua eta erreparazio komunitarioko ekintzak.

10. NOREKIN KOORDINATU ETA NORA JO?

Indarkeria matxista egoera baten aurrean, garrantzitsua da herritarrek, eragileek eta antolatzaileek jakitea nora jo dezaketen eta zein baliabide dituzten eskura. Protokolo honen helburua ez da baliabide guztiak ordezkatzeko, baizik eta Getarian ematen diren egoeren aurrean lehen orientazioa, babesak eta koordinazioa erraztea.

Jai eta herriko ekitaldietan, lehen erreferentzia erreferentziazko pertsonak izango dira. Brazaletan morea eramango duten pertsona horiek lehen harrera egingo dute, laguntza eskainiko dute eta, beharrezkoa denean, Koordinazio Taldeari egoeraren berri emango diote.

Koordinazio Taldeak egoeraren lehen balorazioa egingo du eta, pertsonaren beharrak eta egoeraren ezaugarriak kontuan hartuta, beharrezko udal, foru edo autonomia mailako baliabideak aktibatzea koordinatuko du.

Baliabide horiek pertsona erasotuaientzat ez ezik, egoeraren ezaugarrien arabera, indarkeria matxista egoera baten berri eman duten edo pertsona erasotuari laguntza eskaini dioten pertsonen ere eskaini ahal izango zaizkie, baldin eta gertatutakoaren ondorioz babes edo akonpainamendu beharrak identifikatzen badira.

Garrantzitsua da azpimarratzea, protokolo honek ulertzen du baliabideetara jotzea ez dagoela salaketa jartzearen menpe. Pertsona guztiek dute informazioa, arreta, babesa eta akonpainamendua jasotzeko eskubidea.

LARRIALDIAK

112 SOS Deiak

Larrialdi egoeretan lehen aktibazio zerbitzua izango da. Arrisku egoeretan, eraso fisikoetan edo berehalako esku-hartzea behar denean deituko da.

Osasun zerbitzuak

Sexu-eraso edo eraso fisiko baten aurrean, osasun arreta lehenbailehen jasotzea gomendatzen da. Osasun zerbitzuek:

- lehen arreta medikoa,
- lesioen balorazioa,
- laguntza emozionala,
- eta beharrezko frogak medikoak egiteko aukera eskaintzen dute.

Udaltzaingoa eta Ertzaintza

Segurtasun arrisku egoeretan edo delitu izan daitezkeen egoeretan aktibatu ahal izango da. Protokolo honek argi uzten du salaketa jartzea pertsonaren erabakia dela, baina informazioa eta laguntza eskaini beharko direla une oro.

Oharra: Getariako Udaltzaingoaren arreta-ordutegia mugatua da, eta egunaren edo urte-sasoaren arabera aldaketak izan ditzake. Protokolo hau idazteko unean, udako ordutegi orientagarria 09:00etatik 21:00etara da, astelehenetik igandera. Ordutegi horretatik kanpo gertatzen diren larrialdi edo premiazko egoeretan, edo Udaltzaingoa erabilgarri ez dagoenean, Ertzaintzarekin edo 112 Larrialdi Zerbitzuarekin harremanetan jartzea gomendatzen da.

ARRETA ETA BABES BALIABIDEAK

Udal eta Gizarte zerbitzuak

Getariako Udaleko Gizarte Zerbitzuek lehen orientazioa, akonpainamendua eta baliabideetara bideratzea eskainiko dute.

Harremanetarako:

Astelehena eta ostirala 9:00-13:00 edo aurrez hitzordua hartuta Gudarien enparantza 1

943 89 60 24

HARIBERRIA. Gipuzkoako Sexu Indarkeriaren Arretarako Foru Zerbitzua

HARIBERRIA Gipuzkoako Foru Aldundiaren sexu-indarkeriaren aurkako arreta integraleko zerbitzua da. Urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan dago erabilgarri.

Sexu-indarkeria berriki edo iraganean jasan duten emakumeei eskaintzen die arreta, indarkeria hori munduko edozein lekutan gertatu bada ere eta salaketa jarri den ala ez kontuan hartu gabe. Era berean, arreta eskaintzen die senideei eta gertuko pertsoneri.

Zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Urteko egun guztietan informazioa eta orientazioa (aurrez aurreko, telefonozko, WhatsApppeko edo bestelako arreta)
- laguntza psikologikoa;
- orientazio eta aholkularitza juridikoa;
- gizarte arloko arreta, akonpainamendu profesionala, beharrezkoa denean, osasun, polizia edo epaitegietako prozesuetan;

Harremanetarako:

900 840 188

hariberria@gipuzkoa.eus

Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Koordinazio Zerbitzua (SFCUS)

Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte larrialdietako koordinazio zerbitzua eskaintzen du, genero indarkeria edo sexu-indarkeria jasaten duten pertsonen premiazko babes beharrei erantzuteko.

Egoeraren balorazioa egin ondoren, beharrezkoa bada, pertsona harrera baliabide egokira bideratuko da.

Zerbitzua urteko egun guztietan dago martxan.

Harremanetarako:

943 22 44 11 (07:00etatik 21:00etara)

112 (24 orduz)

SATEVI. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arreta telefonikoa

SATEVI emakumeen aurkako indarkeria matxista jasaten duten pertsonentzako informazio, orientazio eta laguntza psikologikoko zerbitzua da.

Ezaugarriak:

- 24 orduz eta urteko egun guztietan;
- hainbat hizkuntzatan eskuragarri;
- entzumen desgaitasuna duten pertsonentzat irigarria.

Gainera:

- senideek, lagunek eta gertuko pertsonak ere erabil dezakete;
- profesionalentzako informazioa ere eskaintzen du;
- Estatuko 016 telefonotik egindako deiak bertara bideratzen dira.

Harremanetarako:

900 840 111

Delituen Biktimei Laguntzeko Zerbitzua (SAV)

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua da, delituen biktimei laguntza juridikoa, psikologikoa eta soziala eskaintzen diena.

Aurrez aurreko arreta eskaintzen du, hitzordua eskatuta.

Harremanetarako:

900 10 09 28

SUBJEKTU TRANSMARIBIBOLLOENTZAKO BALIABIDEAK

Berdindu

Lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualei eta haien ingurukoei informazioa, orientazioa eta arreta eskaintzen dien zerbitzua da.

Aurrez aurreko arreta, telefono bidezkoa, posta elektronikoa edo bideodei bidezkoa eskaintzen du.

Helbidea:

Mikeleteen Pasealekua 20, Donostia.

Harremanetarako:

943 21 65 51

688 769 865

berdindu.gipuzkoa@gmail.com

Eraberean Sarea

Eraberean Eusko Jaurlaritzak sustatutako sarea da, jatorri, etnia, nazionalitate, sexu-orientazio edo genero-identitateagatik ematen diren diskriminazio egoeren aurka lan egiteko.

Gipuzkoan, AGIFUGI, Gehitu eta SOS Arrazakeria elkarteek osatzen dute sarea.

Diskriminazioa jasan duten edo horrelako egoeren berri duten pertsonen arreta, orientazioa eta akonpainamendua eskaintzen die.


Gehitu elkartearen harremanetarako:

943 45 17 22

607 82 98 07

infasis@gehitu.org

info@gehitu.org



11.

NOLA HOBETUKO DUGU PROTOKOLOA?

Protokolo hau ez da dokumentu itxi edo aldaezin bat. Aitzitik, tresna bizia izan nahi du, Getariako errealitateari, herriko beharrei eta indarkeria matxisten inguruan sortzen diren erronka berriei egokitzeko gai izango dena. Indarkeria matxistak aldatzen diren bezala, prebentzio, arreta eta erantzun mekanismoek ere etengabe berrikusi eta eguneratu behar dira.

Horregatik, protokolo hau etengabeko hobekuntza prozesu baten barruan ulertzen da. Helburua ez da soilik dokumentu bat izatea, baizik eta herrian indarkeria matxisten aurrean erantzun koordinatua, eraginkorra eta zainzailea eraikitzeke tresna praktikoa izatea.

Protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ardura nagusia Koordinazio Taldearena izango da. Talde horrek protokoloaren aplikazioa aztertuko du, emandako egoeren balorazioa egingo du eta beharrezko hobekuntzak proposatuko ditu.

Ebaluazio horretan hainbat alderdi hartuko dira kontuan:

- protokoloa ezagutzen den edo ez herrian;
- erreferentziazko pertsonen funtzionamendua;
- koordinazio mekanismoen eraginkortasuna;
- baliabideen erabilera;
- herriko eragileen parte-hartzea;
- emandako arreta eta akonpainamenduaren balorazioa;
- erantzun publiko eta instituzionalen egokitasuna;
- eta identifikatutako zailtasun edo hutsuneak.

Protokoloaren ebaluazioa ez da soilik erakundeen edo profesionalen ikuspegitik egingo. Herriko eragileen, jai antolatzaileen, ostalaritzaren, Gazte Asanbladaren, mugimendu feministaren eta parte hartu nahi duten gainerako eragileen

ekarpenak ere jasotzea sustatuko da. Protokolo hau komunitate osoarena den neurrian, haren hobekuntza ere elkarlanean eraiki nahi da.

Horretarako, gomendagarria izango da urtean behin gutxienez balorazio saio bat egitea, bereziki jai nagusien ondoren. Bilera horretan aztertuko dira:

- urtean zehar izandako egoerak;
- protokoloaren aplikazioan izandako zailtasunak;
- identifikatutako indarguneak;
- eta etorkizunerako hobekuntza proposamenak.


Halaber, beharrezkoa denean, protokoloaren edukiak eguneratuko dira. Eguneratze horiek egin ahal izango dira:

- lege edo araudi berriak onartzen direnean;
- baliabide edo zerbitzuetan aldaketak daudenean;
- herrian behar edo egoera berriak identifikatzen direnean;
- edo ebaluazio prozesuan hobekuntza beharrak antzematen direnean.

Bereziki kontuan hartuko dira indarkeria matxisten forma berriak, ingurune digitaletan ematen diren indarkeriak, sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako errealitate berriak eta herrian sortzen diren erronka sozialak.

Protokolo honen arrakasta ez da neurtuko soilik aktibatzen den aldi kopuruaren arabera. Arrakastaren adierazle izango dira, baita ere, herrian indarkeria matxisten inguruan dagoen kontzientziazio maila, zaintza komunitarioaren indarra, laguntza eskatzeko erraztasuna, erantzun koordinatua emateko gaitasuna eta emakumeek zein subjektu transmaribibolloek jaiak eta herriko espazioak askatasun eta segurtasun handiagoz bizitzeko duten aukera.

Azken batean, protokolo hau ez da helmuga bat, bide bat baizik. Getarian indarkeria matxistarik gabeko jaiak eta harremanak eraikitzea etengabeko erronka kolektiboa da, eta horrek entzutea, ikastea, berrikustea eta hobetzen jarraitzea eskatzen du. Horregatik, protokolo honek etengabeko berrikuspenaren, ikaskuntzaren eta herri mailako konpromisoaren aldeko apustua egiten du, indarkeria matxisten aurrean gero eta erantzun sendoagoa, koordinatuagoa eta eraginkorragoa eraikitzeko.



I. ERANSKINA. ERANTZUN INSTITUZIONALERAKO EREDUA

GETARIAKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA INDARKERIA MATXISTA EGOERA BATEN AURREAN

Getariako Udalak bere kezka eta gaitzespen irmoa adierazi nahi ditu azken orduetan ezagutu den indarkeria matxista egoeraren aurrean.

Lehenik eta behin, gure elkartasuna, babesa eta hurbiltasuna adierazi nahi dizkiogu erasoak jasan duen pertsonari eta haren ingurukoei, haren ongizatea, duintasuna eta erabakiak erdigunean jarritz.

Getariako Udalak argi adierazi nahi du indarkeria matxistek ez dutela lekurik gure herrian, ez eta jai, aisialdi edo komunitate espazioetan ere. Edozein indarkeria matxista adierazpen onartezina da eta emakumeen eta subjektu transmaribibolloen askatasunaren, duintasunaren eta eskubideen aurkako erasoak da.

Une honetan, lehentasuna erasoak jasan duen pertsonaren arreta, babesa eta eskura dituen baliabideen berri ematea da, haren erabakiak eta erritmoak erabat errespetatuz. Getariako Udalak beharrezko koordinazioa eta laguntza eskainiko ditu, dagozkion baliabide eta erakundeekin elkarlanean.

Era berean, herritarrei arduraz jokatzeko deia egiten diegu, zurrumurruak, espekulazioak edo pertsonen intimitatea eta duintasuna kaltetu ditzaketen jokabideak saihestuz, eta erasoak jasan duen pertsonaren eskubideak eta konfidentzialtasuna errespetatuz.

Getariako Udalak herriko eragileekin eta komunitatearekin batera lanean jarraituko du indarkeria matxistak prebenitzeko, zaintza kolektiboa sustatzeko eta Getaria askatasunean, berdintasunean eta errespetuan oinarritutako herria izaten jarrai dezan.

Azkenik, herritar guztiei dei egiten diegu indarkeria matxisten aurrean tolerantziarik ez duen jarrera aktiboa erakustera eta herri seguru, aske eta berdinzale baten aldeko konpromisoa berritzera.

Getarian, indarkeria matxistek ez dute lekurik.

OHARRA:

Erantzun publiko instituzionala. Indarkeria matxista egoera baten aurrean, Koordinazio Taldeak baloratuko du erantzun publiko edo instituzional bat ematea egokia den ala ez, betiere erasoak jasan duen pertsonaren ongizatea, borondatea, konfidentzialtasuna eta segurtasuna lehenetsiz. Erantzun publikoak ez du gertakarien xehetasunik emango, ez du pertsonak identifikatzeko daturik zabalduko eta ez da salaketa edo prozedura judizial baten existentziaren mende egongo. Eranskin honetan jasotako ereduak oinarri gisa erabiliko da, kasu bakoitzaren ezaugarrietara egokituz.